

IBARRA ▶

## Pilates ikastaroa Belabietan

Hiru hilabete  
iraungo du ▶ 5



# Udaberriaren hasierarekin batera, berrikuntza ugari Tolosako azokan

**NEGUA** ▶ Aurtengo negu gogorak eragina izan du larunbatero azokan saltzen diren produktuetan ▶ 4



Lore ugari saltzen dira udaberriko larunbatetan Berdura plazako azokan. IMANOL GARCIA



INIGO ASENSIO

## Goi mailetara salto egitea du helburu Ion del Rio

**TOLOSA** ▶ Denboraldi hasieran fitxaketarekin gorabeherak izan ditu Andaluçia-Paul Versan taldeko txirrindulari profesionalak ▶ 2



**'SAN INAZIO'**  
MEDIKU ZENTROA

R.P.S 401/04

### KONTSULTAK

- Familiako medikuntza
- Oftamologia
- Erreabilitazioa
- Pediatria
- Arma eta gida baimenak

San Inazio, 2 (Muñazabal altzarrien ondoan) • TOLOSA  
EGUNERO - Tel.: 943 65 41 24



**Landare Berezien 3. Azoka**  
Iturrarango Lorategi Botanikoa

AIA (GIPUZKOA) 2/3-04-2005

Ordutegia: goizeko 10etatik arratsaldeko 6etara  
Sarrera: 2 € (12 urtetik beherakoak doan)

DOHAINEKO: AUTOBUS zerbitzua egongo da Zarauzko  
Euskalren-eko geltziketik eta Lorategi Botanikoaren  
inguruan maldoratuako sparkalekusetatik

943 635 389 www.iturrarango.org iturrarango@gipuzkoa.net



## ION DEL RIO ▶ TXIRRINDULARI PROFESIONALA



I.ASENSIO

# «Txirrindularitza talde handiena izango da eta bertan egotea komeni da»

Denboraldi hasieran fitxaketarekin izandako gora-beheren ondoren, «kalitateko kilometroak» egiten ari da eta poliki-poliki sasoi onera iristen joan beharko du

## IÑIGO ASENSIO

26 urte ditu eta bere bizitza osoa pedalei ekiten pasatu du. Afizionatutan 25 lasterketa irabazi ondoren, 24 urterekin profesionaletarako salto ematea lortu zuen, Paternina-Costa de Almeria taldearekin. Bere lehen urtean maila bikaina erakutsi arren, Uci ProTour-a dela eta, txirrindularitzak jasan duen berregituratzeak arriskuan jarri du bere jarraitasuna mundu profesionalean. Andalucia Paul-Versan taldearekin fitxatu ondoren, lasaitasun handiagoz eta helburu berriez beterik mintzatu zen Ion del Rio tolosarra HITZAREKIN.

**Nola izan dira, denboraldi hasieran, zure fitxaketarekin izan diren gora-behera guztiak?**

Urtarrilaren erdialdera, nire talde zenaren babesle nagusiak, Paterninak, jarraitzeko inentziorik ez zuela jakinarazi zigun. Egoera horretan taldearen jarraipena nahiko zaila zen eta nik beste talde batera joa-

teko askatasuna eskatu nuen. Zuzendariak, Miguel Morenok, pazientzia izateko eskatu zidan, taldea aurrera aterako zela. Aste batzuk beranduago jakin genuen ezetz.

**Eta orduan talde bila...**

Denbora gehiegi ez zegoen eta gainera talde gehienak ordu-rako osatuta zeuden. Kaiku, Relax eta Orbearekin hitz egin nuen, baina burutu behar zuten lasterketa kopururako nahikoa gizon zituztela esan zidaten. Orduan, aurreko denboraldian nire taldeko bigarren zuzendari zenarekin hitz egin nuen, Juan Martinez Oliverrekin, aurten Andalucia Paul-Versan taldeko zuzendari dena. Honek, bere taldean lekua gordeko zidala esan zidan, baina baita zerbait hobea bilatzen saiatzeko eskatu. Italian elkarrizketak izan genituen zenbait talderekin, baina guztiek denbora eskatzen ziguten eta horixe zen guk ez genuena; denbora.

**Azkenean, beraz, Andalucia Paul-Versan taldera?**

Bai, lasterketak hasita zeuden eta ez zegoen gehiagorako astirik. Otsailaren azkeneko astean sinatu nuen Martinez Oliverren taldearekin.

**Zein arazo suposatzen du horrek?**

Arazorik ez dago, baina joandako denboraldian bigarren mailako talde batean egon ondoren maila mantendu nahi nuen baina azkenaldian txirrindularitzak jasan dituen aldaketak direla eta zaila izan da. Andalucia taldea, talde kontinentalak, 3. mailako alegia, eta horregatik ezin dugu lasterketa guztietan parte hartu.

**Zein proba korrituko dizu aurrerantzean?**

Orain hiru asteko atsedendaldia hartuko dut eta Zornotzako Udaberri Sari Nagusian ekingo diot berriro lehiaketari. Apirilaren itzuli askotan hartuko dut parte, maiatzan lasterketa guxtiango izango ditugu eta ekaina eta uztailaren berriro lasterketa mordoak izango dira. Abuztua, berriaz, ia lasterketarik gabeko hilabetea izango da guretzat

eta horrekin ia amaitutzat eman beharko dugu denboraldia. Dena den, oraindik ez dago dena garbi, eta esaterako, Euskal Bizikletara gonbidatuak izateko aukerak dauzkagu. Oso ondo egongo litzateke berriro etxean aritzea.

**10. Luis Puig Sarian, 10. eta 9. Valentziako Itzuliko bi etapetan, 3. eta 4. Portugalen... Zein da lehen lasterketa hauetaz egiten duzun balorazioa?**

Emaitzak nahiko onak dira, hala ere, nire errendimendua espero nuena izaten ari da. Urte hasieran, fitxaketaren gora-beherak izan zirela eta, ezin izan nuen nahi bezala entrenatu. Orain kalitateko kilometroak egiten ari naiz eta poliki-poliki sasoi onenera iristen joan beharko dut. Maldan gora hobetzea da helburuetako bat, 30 txirrindulari inguruko taldeetan helmugara iritsiz, garaipenak lortzeko nahikoa abiadura dudalako. Denboraren poderioz profesionalismora hurbiltzen ari naiz, gero eta

## ETORKIZUNA

«Helburu nagusia udaberrian gauzak ondo egin eta datorren urterako goi mailetara salto ematea da»

## EUSKAL BIZIKLETA

«Euskal Bizikletara gonbidatuak izateko aukerak dauzkagu; oso ondo egongo litzateke berriro etxean aritzea»

## UCI PRO TOUR

«Inork ez daki benetan lagungarria izango den txirrindularitzarentzat; badirudi inork ez duela nahi, baina hor dago»

errazago berreskuratzen ditut indarrak esfortzuen ostean eta indar handiagoa dudala ere iruditzen zait.

**Azken urteetan klasikomano eta txirrindulari azkarren kultura zabaltzeak ere lagunduko du ezta?**

Bai, badira Freire, Astarloa, Valverde eta bestelako txirrindulariak, jendearentzat ikusgarriak direnak. Horrek asko laguntzen du. Hor dira Perdiguero eta Vicioso bezalako gizon azkarrak ere. Jendea beste txirrindularitza bat onartzen eta aintzat hartzen ari da, eta ona da guztiontzat.

**Nolako da txirrindularitzaren egoera berria Uci Pro Tour ligaren sorrerarekin?**

Zaila da dena modu orokorrean aztertzea. Garbi dago interesa talde handiek dutela. Txirrindularitza elite bat bihurtu nahi dute, ikusgarriagoa eta errentagarriagoa. Baina aldi berean beste txirrindularitza bati min egingo diote. Errioxa, Aragoi eta Asturiaseko itzuliak edota Euskal Bizikleta bera pikutara joango dira urte pare batean telebistatik gabe gertatzen badira. Talde askoren desagerpena ere ekarriko du eta inork ez daki benetan lagungarria izango den orokorrean txirrindularitzarentzat; badirudi inork ez duela nahi, baina hor dago.

**Amaitzeko, zein dira denboraldi honetarako helburuak?**

Helburu nagusia udaberrian gauzak ondo egin eta datorren urterako goiko mailetara salto ematea da. Txirrindularitza talde handiena izango da eta bertan egotea komeni da. Horrez gain, garaipen bat lortzea ere ondo legoke, talde handien arreta erakarriko lukeelako.

GIZARTEA ▶

## Antxon Artolazabal gudaria hil da

Francoren ondorengo lehen Udal Gestorako lehendakaria izan zen

JOXEMI SAIZAR

Joan zen larunbatean, hilak 26, hil zen Gasteizen Antxon Artolazabal Txintxurreta tolosarra 86 urte zituela. Espainiako Gerra Zibilean Lenago il batailoiko gudaria izan zen, gerra ondoren sei urte preso egin zituen Langileen Batailoietan Andalucian eta Bizkaian, lizentzia lortu zuenean Espainiako banderaren zina egin behar izan zuen. Argentinan beste hamabi urte egin zituen eta «hemengo egoera baketu zenean» Tolosara itzuli zen Arto-

lazabal, emaztea eta bi seme-alabekin.

Francoren ondoren eta 1979ko lehen udal hauteskundeak baino lehen, Tolosako Udal Gestoraren lehendakari izan zen EAJren ordezkari gisa.

Harotz-ebanista lanetik erretiratu zenean —duela 20 urte— Gasteizera joan zen bizitzera emaztea eta seme-alabekin batera. EAJren zatiketaren ondoren Garaikoetxearen alde jo zuen eta EAren sorreran parte hartu zuen. Militantzia jarraitu du hil arte alderdi horretan, goi mailako posturik izan gabe.

Aberririkiko leial

Gizon abertzale eta euskaltzale bezala definitzen dute gertutik ezagutu zutenek. Gaztetandik murgildu zen abertzaletasunean. «Bere bizitza osoan oso lerro garbia eraman du. Denekin oso leiala izan zen: aberriarekin, erlijioarekin —jerarkiarekin kritiko— eta familiarekin. 'Aitona haizea bezala libre izan da beti; bere mailara iristea kostatuko zaigu' esan zuen nire semeak hildakoan», gogoratzen zuen atzo bere alaba Beñoñak.



Antxon Artolazabal. HITZA

«Euskadi asko maite zuen, barru-barruan zuen. Horregatik, hemengo egoeragatik Argentinara, bere izaba batengana, joan behar izan genuenean,

gure hezurak uztera Euskal Herrira etorri nahi genuela argi genuen», azaldu dio HITZARI Maria Josefa Iriondo bere alargunak.

Eako alderdikideek «oso militanten aktibo» gisa gogoratzen dute, «nahiz eta zatiketarengatik desengainu handia izan eta politika aktiboa utzi». «Gasteizeko alderdikideek ere kontzeptu bera dute», azaldu du Onintza Lasa zinegotzi tolosarra eta EAKo komunikazio arduradunak.

Gasteizen herenegun izan ziren Antxon Artolazabalen aldeko hileta elizkizunak eta atzo Tolosako San Frantzisko elizan beraren aldeko meza egin zuten. Senitarteko eta lagun ugari elkartu zen gudari zaharrari azken agurra ematera.

ESKIA ▶

## Alpinokoen domina festa Candanchun

Bederatzi kide lehiatu ziren Espainiako Txapelketan; emaitzak, «bikainak»

IRATXE ETXEBESTE

«Konpetizio denboraldiari amaiera emanez, martxoaren 20tik 23ra Fondoko Eskiko Espainiako Txapelketa izan da Candanchun. Alpino Uzturre elkarteko partaidetza zabala —guztira bederatzik eskiatzaile— izan dugu eta emaitzak bikainak izan dira». Horixe adierazi dute Alpino Uzturrekoek joan den asteburuan hasi eta Aste Santuko egunen bezperan bukatutako txapelketa garrantzitsuari buruz galdetuta.

«Igandean [martxoaren 20koa] eguraldi eguzkitsua izan genuen, eta bizitako jardunaldia bikaina izan zela esan dezakegu. Ikusle asko zegoen». Testuiguru horretan korritu behar izan zuten korrikalari helduenek eskiatloia izeneko proba berria. Mutilek 7,5 kilometro klasiko eran, eta behin eskiak eta bastoiak aldatuta, beste 7,5 kilometro *skating* eran. (Lasterketa gogorraz eta biziak gozatu ahal izan genuen; Opa izeneko tontoretatik zirkuitoaren ia gehiena ikusten zen, gainera). Kadete mailakoan artean Joseba Rojo tolosa-

rra hirugarren postuan kokatu zen hasieratik, eta oso ondo eutsi zion horri helmugaraino. Alpino Uzturre elkarteko hitzetan, «bikaina» da Rojok lortutakoa. Izan ere, «maila handiko korrikalariak daude maila horretan: andaluziarrak, kataluniarrak, nafarrak, asturiarrak...». Eta Rojoren aurretik sailkatu ziren biak bera baino urtebete zaharragoak dira.

Agilutxo kategorian, 5 kilometroko lasterketa egin behar zuten korrikalariak klasiko eran. «Goizeko hamaikak jota ziren, eta bigun-biguna zegoen elurra. Horrek gogortu egiten zuen proba». Bizi-bizi hasi ziren Imanol Rojo eta Erlantz Gonzalez lasterketa buruan. «Tartea oso txikia zen eta gertu zuten aragoarra. Hirugarren eta laugarren kilometroen artean bizi izan zen aurrea hartzeko lehia, eta eroeketaren bat edo beste izan zen, horrexegatik». Helmugatzera, Imanol Rojok gutxitu egin zuen irabazleak harekiko zuen errenta, eta tarte txiki batek baino ez zituen bereizi lehena eta bigarrena. Hirugarren postuan heldu zen bukaerara Erlantz Gon-



Imanol Rojo —ezkerrean— eta Erlantz Gonzalez —eskuinean—, joan den astean, podium-ean dominak soinean eta ikurrinak eskuan. HITZA

zalez. Lekukoek adierazitakoaren arabera ikusgarria izan zen lasterketa hura: «A zer lasterketa! Korrikalariak ahal zuten guztia eman zuten».

Hurringo egunean, astelehenez, *skating* erako proba zuten agilutxo kategoriako eskiatzaileek, eta bezperako lasterketan lortutako emaitzen arabera zuen bakoitzak irteera unea. Hirugarren lekuan helmugaratu zen Erlantz Gonzalez bezperan, eta lehen bi sailkatuak ez beste lehiakideekiko nahiko errenta atera zuen haragatik. Hala ere, Alpino Uzturreko korrikalariak ederki nabaritu zuen igandean hirugarren postuari heltzeko egin behar izan zuen ahalegina, eta neka-

tu antzera bukatu zuen lasterketa. Hirugarren.

Indartsu atera zen Imanol Rojo aragoiarrak harrapatzerak; elkarren ondoan joan ziren tarte handi batean, eta elkar ukitu batean bastoia hautsi zitzaion tolosarrari. Bastoi bakar batekin, eutsi egin zion lehiari eta bastoi berri bat lortu ostean biak batera heldu ziren helmugara. *Skating* erako proban Imanol Rojo izan zen irabazle eta bi eguneko persekuzio proban bigarren postua lortu zuen. Erlantz Gonzalez izan zen hirugarrena.

Benjamin mailakoek, berriz, 2,5 kilometro korritu zituzten igandean eta beste 2,5 astelehenean, klasiko eran lehenen-

ERRELEBOAK ▶

Iraupen Eskiko Espainiako Txapelketa izan zen joan den asteburuan hasi eta Aste Santuko oporren aurreko egunera arte Candanchun. Tolosako Alpino Uzturre elkarteko eskiatzaileek parte hartu zuten txapelketan, eta erreleboetan honako emaitzak lortu beste kide batzuekin batera:

**Infantil mutilak.** Alpino Uzturreko Imanol Rojo eta Erlantz Gonzalez eta Eibarko beste kide batek osatzen zuten taldea txapelketan izan zen. 3x5 km.

**Infantil neskek.** Alpino Eneritz Gonzalez bigarren izan zen, Irungo eta Eibarko beste batzuekin batera. 3x5 km.

**Helduak, mutilak.** Alpino Uzturre elkarteko Jon Saizar eta Joseba Rojo seigarren sailkatu ziren beste bi korrikalariarekin batera. 4x10 km.

**Helduak, neskek.** Alpino Uzturre elkarteko Nerea Lopezek eta Eibarko beste bi neskek hirugarren postua lortu zuten. 3x5 km.

go egunean eta *skating* eran bigarrean. Xabier Saizar tolosarrak hirugarren postua lortu zuen proba horietan, Benasqueko bi aragoarren atzetik sailkatuz. «Espainiako Txapelketan hainbeste domina lortuta, emaitza horiek guztiak ikusita, esan daiteke harrobi ona dugula Tolosan», esan dute harro Alpino Uzturre elkarteko arduradunek.

TOLOSA ▶ AZOKA

# Berrikuntzak udaberriarekin batera

Urtaro berriarekin nobedadeak hasi dira Tolosako azokan; aurtengo neguak zeresana izan du

IMANOL GARCIA

Udaberriarekin batera pixkanaka Tolosako azoka beste itxura bat hartzen joango da. Produktu berriak hasiko dira ikusten. Dagoeneko, pasatu den larunbatean, udaberriko lehen azokan, ikusi ziren lehen nobedadeak. Halere, jasandako negu gogorak ere bere eragina izan du.

Batez ere gazta, irasagarria eta perretxikoak ditu Mikel Lasak bere postuan. «Aurten udaberria atzeratuta dator. Zizarekin ez gara hasi eta hori izaten da guretzat udaberriak ekartzen duen aldaketa handiena. Baina inondik ere ez dugu lortu. Bestalde, ardi gazta berriarekin ere hasi gara».

Bertako jendeak gehien erosten duena ardi gazta izaten da. Kanpotik etortzen denak izena nahi du eta Idiazabalgo gazta eskatzen du. Zaporeari dagokionez aldea dago: «Bertakoek ardi gazta berria eskatzen dute, suabea. Ohituta daude horrelakoak jaten», azaltzen du Lasak. «Kanpokoek, baina, gazta eginagoa nahiago dute».

Barazkietan ere hasi dira nobedadeak. «Zainzuriak, tipula berriak, baratxuri berriak ekarri ditugu», dio Kasi Izagirrek, bere ahizpa Ana Marirekin elkarrekin duen postutik. Neguak, ordea, asko eragin du aurten barazkietan. «Pixka bat goiz da hala ere. Negu gogorra egin du eta orain asko kostatzen da, baina pixka bat hasi



Loreak saltzeko garai onena izaten da udaberria. I. GARCIA

da», azaltzen du Izagirrek. Kanpo librea dagoena, babarruna eta ilarren kasu, oraindik hilabete gelditzen zaio azokan erosi ahal izateko.

Porruetan eta azenarioetan neguak kalteak eragin ditu. Halere, orain gutxi izandako eguraldi oneko egun batzuei esker udaberriko tankera hartzen hasi dira baratzak.

Loreen azokan ere hasi dira berrikuntzak, Luis Aginagak zerrendatzen dituenez: «Geranioa, alegria, begonia, sufinia, krabelina...». Pasatutako hotez ere eragina izan dute loreetan eta kalefazioarekin izan dituzte. Negu txarrak salmentak igotzea ere ekarriko du, erosleek etxeko balkoietan izandako lore asko galdu baitituzte. Gainera, udaberriarekin batera jendea animatzen da azokara. «Orain izaten da garairik onena, sanjoanak bitartean», azaltzen du Aginagak. Geranioa eta huntza izaten dira salduenak.

PABLO ALBERDI ▶ AZOKAKO BERRIEMALEA

## «Gazte jendea erosketak egiteko azokara joatera animatuko nuke»

Pablo Alberdik lau urte darमतza komunikabideei larunbateko Tolosako azokaren kronika egiten, tartean HITZARI.

**Zer moduzko lana izaten da azokaren kronika egitea?**

Gustura airtzen naiz. Nekazaritza Ingeniaritza Teknikoko ikasketak egin ditut eta ikasitakoarekin kontaktuan izatea gustatzen zait.

**Nolako osasuna du egun azokak?**

Baserritarren postuak ikusita osasun onekoa dela esango nuke. Eskaintza zabala da eta kalitate handiko produktuak izaten dira. Baserritarrek mimorez ekoiztutako produktuak izaten dira.

**Eta erosleen aldetik?**

Erosleak badaude, baina gazte

jende gutxi joaten da. Jende askok suposatzen du azokako produktuak garestiagoak direla supermerkatuetan baino, eta hori ez da horrela izaten. Produktuak bere garaian erositako, askotan merkeagoak dira azokakoak eta kalitatez askoz hobeak. Gazte jendea erosketak egiteko azokara joatera animatuko nuke. ◀



I. GARCIA

ZIZURKIL ▶ AIZKOLARITZA

## Joseba Otaegi gazteen mailako Urrezko Aizkolarien finalerdirako sailkatu da

IMANOL GARCIA

Bazekien Joseba Otaegi gazteak lehia estua izango zela eta horrela suertatu zen Asteasun jokaturako Urrezko Aizkolarien lehiaketa. Mugertza mutrikuarra zuen aurkari zizurkildarra eta hurrengo kanporaketarako txartela lortu zuen. «Inguruan jendeak esaten zidan irabaziko niola, baina

nahiko zaila ikusten nuen. Gainera, etxe ondoan zenez, presio handia neukan eta nerbioak atera nintzen», azaldu dio Otaegik HITZARI. Abantaila txikia lortu bazuen ere, hasierako tentsio lehia guztian izan zuen Otaegik. Azkeneko enborrean, gainera, adarra atera zitzaion eta Mugertza, hortaz konturatuta, azken esprinta egiten hasi zen, baina ezin izan zuen zizur-

kildarra harrapatu. Otaegik, azkenean, minutu erdiko tartea atera zion eta «oso gustura» dago txapelketan orain arte egindako lanarekin.

Hurrengo kanporaketa, finalerdia, Xabier Mindegiarekin izango da. «Beste maila bat du honek eta oso zaila izango da irabaztea», azaldu du Otaegik. Lehia apirilaren 10ean izango da, Zumaian, 12:00etan.

VILLABONA-ZIZURKIL ▶ HALTEROFILIA

## Pultsulariek emaitza onak izan dituzte Iruñean

I. GARCIA

Danena-Olaederrakoek, beste behin, emaitza oso onak lortu zituzten. Kasu honetan Iruñean jokaturako Euskadiko Teknika Eskolarreko Txapelketan izan zen. Benjamin mailan, Asier Gallegok bigarren postua lortu zuen. Alebinetan, Kellyn Quintanak bigarren postua eta Diego Diasek lau-

garrena lortu zuten. Eta infantil mailan, berriz, Igor Sasiainek lehenengoa eta Iker Hernandezek bigarrena lortu zuten.

Danena-Olaederra halterofilia taldeko pultsulari hauek guztiak Espainiako Teknika Eskolarreko Txapelketarako sailkatu ziren. Madrilan egindako txapelketa hori, apirilaren 16an.

IBARRA ▶ KIROLA

# Pilates ikastaroa antolatu dute Belabieta kiroldegian

Apirilean hasi eta hiru hilabete iraungo du «mugimendu kontrolatuan» oinarrizten den gorputz teknikaren ikastaroa



Gero eta gehiago praktikatzten da pilates gorputz teknika. HITZA

NOELIA LATABURU

Pilates teknika gero eta zabalduagoa dago inguruko kirolarrien artean. Garai batean jende aberatsarekin identifikatzen bazen ere, egun edonork du kirol hau praktikatzeko aukera. Bada, urrutira joan gabe, Ibarra pilates ikastaroa antolatu dute datozen hiru hilabeteetarako.

Belabieta udal kiroldegian egingo dira pilates saio hauek apirila, maiatza eta ekaina bitartean, bi txandatan. Lehena, astelehena eta asteazkenetan, 09:30ean, 12:15ean, 15:15ean eta 16:15ean. Bigarrena, berri, astearte eta ostegunetan,

10:45ean eta 16:15ean. Bazkideek 52 euroko kuota ordaindu beharko dute, Ibarra kiroldegiko bazkide ez direnek 56 euro ordainduko dutelarik. Eskola hauek talde txikietan emango dira, metodoaren irakaskuntza klasikoaren funtsari eutsi nahian.

## Zertan datza, bada, pilates?

Dena den, asko dira pilates metodoaren berri dutenak, bere praktika nola burutzen den jakin gabe. Pilates mugimendu kontrolatueta oinarrizten den gorputz teknika da, burua, gorputza eta izpiritua biltzen dituen. Ariketak mugimendu

## PILATES IKASTAROA ▶

Ibarra Belabieta udal kiroldegian antolatu dute pilates ikastaro berritzailea.

## ZENBAIT DATU

**Iraupena.** Apirila, maiatza eta ekaina.

**Egunak.** Astelehena eta asteazkenetan 09:30ean, 12:15ean, 15:15ean eta 16:15ean. Astearte eta ostegunetan 10:45ean eta 16:15ean.

**Prezioak.** Kiroldegiko bazkideentzat 52 euro eta bazkide ez direnentzat 56 euro.

**Informazio gehiago.** 943 67 15 44 telefono zenbakian.

egokien bidez egonkoritu eta arnasaren bidez koordinatzen dira. Metodo hau oso onuragarria da organismoaren erdiko gunea indartzeko; dena den, gorputzarentzat baikorrak diren beste funtzioak ere betetzen ditu, giharren indarra eta erresistentzia handitzea, mugimenduaren koordinazioa eta kalitatea hobetzea, malgutasuna hobetzea, tentsioa eta estresa murriztea, esaterako.

Pilates praktikatzeko printzipioen artean kontzentrazioa kontrolatzea, egonkortasuna, ariketen zehaztasuna, malgutasuna eta arnasketa zehatza burutzea azpimarratzen dituzte adituek.

GAZTELU ▶

## Ludoteka zerbitzua ostirala bitartean

Gazteluko Udalak ludoteka zerbitzua antolatu du, zortzi urte beherako neska eta mutileri zuzenduta, euren Bazko Asteko oporrekin bat eginez. Lau egun iraungo ditu ludotekak, atzo hasi baitzen eta ostirala bitartean mantenduko da. 10:00etatik 13:00etara zabalduko ditu bere ateak Gazteluko Udalaren ekimenez, herriko gaztekoen gozagarriak, izan ere, euren jai egunak giro alai batean eta jolasak eginez igaro ditzakete.

AMEZKETA ▶

## 'Ohizko susmagarriak' zinema saioan

Bihar zine ziklo bati hasiera emango zaio Amezketan. Horretarako gela polibalentea zinema bilakatuko da datozen lau ostegunetan. 21:00etan hasiko da saio eta filma ikusi ostean hau komentatzeko edo beste gai baten gainean solasaldia egiteko aukera luzatuko dute, bizkotxoekin txokolatea hartuz. Biharko filma *Ohizko susmagarriak* estatubatuarra da, Bryan Singer-ek 1995. urtean zuzendu zuena. 90 minutuko iraupena du eta Stephen Baldwin, Gabriel Byrne eta Kevin Spacey dira aktore lanetan. Film luze honen argudioan gaizkile talde batek hilketa anizkoitz bat ikertzen ari den ikertzailea irtenbiderik gabeko zulora darabate. Protagonistak hilketa horren errudunak topatu beharko ditu bere ibilbidean.

BALIARRAIN ▶

## Jai Batzordearen bilera bihar, gizarte gelan

Urtero Baliarrainen izaten den txekor jatea dela eta bihar, udaletxeko gizarte gelan, bilera irekia izango da 20:30ean. Bertan jorratuko diren gaiak, besteak beste, txekor jatearen bazkariko eguna, menua eta txartelen salneurria dira. Bestalde, gimnasioaren gaia ere izango da eztabaidagai bileran bertan. Herritar guztiak bilerara azaltzeko deialdia jaso dute dagoeneko euren etxeetan eta Udalak parte-hartzeria bultzatu nahi ditu.

BERROBI ▶

## Altunak Errioxako Irekia irabazi zuen Haron

Iñigo Altuna berrobitarrak Errioxako Irekia irabazi zuen asteburuan Haron Barberito VI.a bikote zuela, Larraia eta Armendariz 22 eta 18 garaitu ostean. Berrobikoak emanaldi bikaina eskaini zuen norgehiagoka irabazteko urrats handia emanez. Horrela, bere lehen txapela lortu du profesionaletan Altunak. Hasiera ezin hobea izan zuen bikoteak eta, eta erdialdera berdindu ostean berriz ere aurreratu ziren, garaipena lortuz.

ALEGIA ▶

## Iganderako bazkarirako txartelak salgai

Ostiral honetan, eta igandera bitarte, II. Zerbeza Festa izango da Alegian. Igande eguandian, eta feria honi amaiera emateko, herri bazkaria antolatu dute Intxurre elkarteak, herriko frontoian izango dena. Bazkari honetara joan nahi duenak eskuragarri ditu txartelak, 7 euroren truke, herriko hainbat tabernatan —jubilatuetan, Ixkiña, Hilario Berri eta Etxeberrian—. Garagardo festa honen menuan bi salbitxa, paela eta gazta sartuko dira.

 **bidali zure argazkiak!**  
**argazki hitza lehiaketa**

NORA BIDALI

Posta elektronikoz: [tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info](mailto:tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info)

Posta arrunta: Argazki lehiaketa. Tolosaldeko eta Leizaldeko Hitza Araba etorbidea 5, atzea • 20400 TOLOSA

Nahi izanez gero argazkiak ekar daitezke Tolosako HITZAREN egoitzara

Oinarriak [www.tolosaldeko-hitza.info](http://www.tolosaldeko-hitza.info)  
webgunean eskura ditzakezu

1. SARIA: Afari eder bat 2 lagunentzat Berrobiko Iriarte Jatetxean
2. SARIA: Adunako Zabala sagardotegian 2 lagunentzako afari eder bat
3. SARIA: Mahala baserriko produktu naturalen sorta aparta

IBARRA ▶ ARETO FUTBOLA

# Multzoko txapelkun berria da Lauburu

Bi partida baino ez dituzte galdu aurtengo denboraldian; Espainiako onenen aurka lehiatuko dira laster ibartarrak



2004-2005 denboraldiko Lauburu Ibarrauko jubenilen taldea. HITZA

## INIGO TERRADILLOS

Pasa den martxoaren 20an jokatu zuen Lauburuk, Ibarrauko jubenilen areto futbol taldeak, 2004-2005 denboraldiko azken partida, baina hau jokatzera joan aurretik bazekiten taldeko jokalariek beraiek lehiatu diren lehenengo multzoko txapelkunak direla.

Lehenengo multzo honetan, Gipuzkoa, Bizkaia, Araba, Nafarroa eta Errioxako taldeak

lehiatu dira, 10 denera. Izan ere, 12 talde izan behar ziren, baina denboraldia hasteko egun gutxi geratzen zirenean bi talde erretiratu ziren, azkenean 10 taldek osatu zutelarik lehenengo multzoa.

Ibarrauko taldearen ibilbidea ikusgarria izan da, jokatu dituzten 18 partidetatik 16 irabazi eta bi galdu baitituzte. Saikapean bigarren geratu direnei 10 puntu atera dizkiete Ibarrauko gazteek.

Kontuan hartu behar da gainera, taldeko hiru jokalarik, Labakak, Aierzak eta Davilak lehenengo taldean jokatu dute batik bat, beraz, jubenilen mailatik at izan dira; besteek ere izan dute nagusien taldean jokatze aukera. Horrela gertatu da Loitzun, Artola eta Elustondorekin.

Beraien multzoko txapelkunak izanik, Espainiako Txapelketan ariko dira laster gainerako multzoetako irabazleen aur-

JUAN PABLO ZUBELZU ▶ ENTRENATZAILEA

## «Maila altua dutela erakutsi dute mutilek, baina dena gure alde izan dugula ere egia da»

Juan Pablo Zubelzu Txubel-ek sei urte daramatza entrenatzen Ibarra. Bi urte jubeniletan, lurraldekako mailako taldean ondoren eta azkenik bi denboraldi jubeniletan gaur arte. Tartean, laguntza behar badute nagusien taldean laguntzeko prest agertu da beti. Aurtengo denboraldian bikain aritu dira, baina hala izan zen pasa den urtean ere, bigarren amaitu baitzuten. Futbol mundua ondo ezagutzen du, jokalariek bezala aritu baita Tolosan eta Beasainen, besteak beste. **Denboraldi polita burutu duzue aurten, edozein entrena-**

**tzailek nahiko lukeena, alegia.** Halaxe da. Bi partida galdu ditugu denboraldi osoan eta hori oso zaila izaten da. Maila ona erakutsi dugula uste dut. Hala ere, ez dira partida guztiak errazak izan eta gogor lan egin beharra izan dugu iritsi garen lekura iristeko. Zortea ere izan dugu lesioekin-eta. **Espero al zenuen iritsi zaretan lekura iristea?** Arazo batzuk izan nituen denboraldi hasieran eta entrenamenduetan ez nintzen izan. Beldur pixka bat zegoen liga hasieran, baina zorte handia

izan dugu, partida errazean hasieran eta zailenak bukatzen egokitu baitzaizkigu eta denbora izan dugu ligara egokitzeko.

**Jokalariek zu bezain gustura izango dira.**

Oso gustura daude eta maila handia dutela erakutsi dute. **Multzoko txapelkunaren aurka ariko zarete laster, zer espero duzue egitea?** Multzoko Txapelkun izatea sari handia izan da guretzat. Orain Espainiako txapelkunaren aurka lehiatuko gara eta maila altua izango dela uste dut. Ahal duguna egingo dugu.



I.TERRADILLOS

TELEFONOAK ▶

LARRIALDIK

▶ 112

**Alegialdea.** Osasun z.: 653212  
**Anoeta-Alkiza-Hernialde.**

Medikua: 65 23 39

**Asteasu.** Medikua: 69 24 23

**Baliarrain.** Medikua: 88 90 03

**Bidegoian.** Medikua: 68 11 34

**Ibarraldea.** Osasun etx.: 672411

**Ikaztegieta.** Medikua: 65 33 29

**Irura.** Osasun zentroa: 69 07 20

**Leitza.** Osasun z.: 948 510800

**Lizartza.** Medikua: 68 20 77

**Orendain.** Medikua: 65 55 95

**Orexa.** Medikua: 68 22 28

**Tolosa.**

▶ Anbulatorioa, larrialdia: 461111

▶ San Esteban: 00 68 00

▶ Gernikako arbola: 00 69 00

▶ Amaroako dispen.: 67 26 37

▶ Asunzion klinika 67 57 99 -

67 53 90 (larrialdia)

▶ Udalzaingoa: 67 58 58

▶ Tolargi: 65 00 16

▶ Iurramendi egoitza: 67 03 25

▶ DYA: 67 25 36

▶ Gurutze Gorria: 67 48 88

▶ Ertzaintza: 53 88 20

▶ Tolosa gasa: 67 53 20

**Villabona.** Anb.: 00 69 70

**Zizurkil.** Aiztondo zerb.: 693930

**KOMUNIKABIDEAK**

▶ Galtzaundi: 65 50 04

▶ Aiurri aldizkaria: 30 07 32

▶ Karrape Irratia: 948 610914

**GUARDIAKO FARMAZIAK**

**Gaur.** Tolosa, M.I. Kale Nagusia 7 (Tolosa). 943 67 06 48.  
Gimeno, A. Elbarren 52 (Leitza). 112.

**TOLOSALDEKO HITZA**

**Publizitatea.** 661 67 88 18.

tolosaldean\_publici@tolosaldeko hitza.info

**Tolosa.** 687 41 00 82 -

687 41 00 33.

tolosa@tolosaldeko hitza.info

**Villabona-Aitz.** 687 41 00 22.

villabona-aiztondo@tolosaldeko hitza.info

**Anoeta.** 687 41 00 22

anoeta@tolosaldeko hitza.info

**Ibarraldea.** 687 41 00 32.

ibarraldea@tolosaldeko hitza.info

**Alegialdea.** 687 41 00 34.

alegialdea@tolosaldeko hitza.info

**Leitzalde.** 687 41 01 18.

leitzalde@tolosaldeko hitza.info

**iragarki laburrak ▶**

**SALGAI**

**Teklatua.** Roland VA7 markako teklatua saltzen da. Deitu 943 11 77 38 zenbakira.

**LANA**

**Emakumea.** Emakume euskaldun bat behar da adineko bi lagun zaindu eta ebeko lanetarako. Arratsaldean eta kotxearekin. Deitu gaez 943 11 72 85 zenbakira.

LEITZA ▶ KIROLA

# Emaitzak: berdinketa eta garaipena

Aurrerak ez du oporraldirik izan egun hauetan eta bi partidu jokatu ditu

JAIONE ASTIBIA

Aste Santua aitzaki hartuta, udaberriko oporraldia hartzea ohiko bada ere, Aurrera futbol taldeko jokalariek ez dute horrelakorik egiterik izan, aurtengo negua elurtsua izaki, hainbat partidu berreskuratu beharrik zituztenez (oraindik beste bat geratzen zaie), egun hauek baliatu dituzte horretarako.

Horrela, bada, bi partidu jokatu dituzte asteburu honetan: bata ostegunez, Aralar Mendiren aurka; astelehenez, bestea, Gazte Berriarekin. Biak hala biak ere etxean, Arkixkilen jokatu dituzte, elurra zela eta, bere garaian jokatzetik izan ez zutelako. Lehendabizikoa, husnako berdinketarekin bukatu zen; 4 eta 1ekoarekin bigarrena.

## Bata, txarra

Partidu txarra suertatu zen Ostegun Santuko Arkixkilen, Aralar Mendiren aurka jokatu zutena: golik ez, baina jokorik ere ez.

Horixe da Aurreratik bertatik asteburuari adierazi ziotena. Markagailuan golik ez zen jartzetik izan, baina «joko aldetik ere oso gaizki. Ez zen futbolik ikusteko aukerarik izan-eta», zioten, «ez etxekoan aldetik, ez eta besteangandik ere», argitu zuten. Eta markagailua estreinatzeke, egun har-

tan puntuak partekatuta bukatu zen partidua. Eta, igoerako ligaxkarako txartela ziur ikustekotan, gelditzen zitzaizkion partiduak irabazi beharrean, gainera.

Eta beharrak asez, horixe egin zuen handik lau egunera, astelehenean, Gazte Berriak talde antsoindarrari 4 gol sartuz.

## Baina bestean ongi

7. minuturako aurkako gola jaso bazuten ere, 22.etik aurrera eta partiduko lehendabiziko zatia bukatzeko 3 minutu falta zirenerako, etxekoek laurak sartuta zituzten: Azpirozek, Arangoak eta Olanok bi. Oso joko polita eta bizia egin zuten gazteek, ikusgarria. Bigarren zatia, ordea, ez zen halakoa izan. Lasai aritu ziren, garaipena ziurtatuta baitzeukaten, eta horrekin hiru puntuak.

Beraz, orain, Aurrera taldea, bigarren dago sailkapenean, liderrarengandik bi puntutara soilik. Bi partidu ditu aurretik, bat Huarteren aurkako berreskuratzeko, hurrengo hilaren 17an, eta bestea hain zuzen ere, sailkapeneko buruaren aurkako, igande honetan bertan, ligako egutegiaren araberrakoa.

Biek irabazita, Lurraldeko 1. Mailako I. taldeko txapeldun lirarteke. Hori ikusteko, Aurrera-zaleek Arkixkileraren joatea bezalakorik ez dute.

LEITZA ▶



Martin Gartziaarena. HITZA

## Herenegun zenduta, atzo agurtu zuten Gartziaarena

Lehendabiziko Aizkolari Txapeldun izana, Lesakene bere baserrian bititu

J. ASTIBIA

Herenegun zendu zen Martin Gartziaarena 77 urte zituela eta atzo arratsaldean eman zioten azken agurra Leitzako Mikel Donearen elizan.

Leitzako Lesakenea baserrian jaio eta bertan ezkondu bizi zen Martin Gartziaarena, 6 seme-alabaren aita izanik, jada aitona egina. Bertan lan eginez atera izan du bizia aurrera.

Gazte denboran, aizkolari handia izan zen Gartziaarena: Lehendabiziko Aizkolari Txapeldun, 1950. urtean, berak eskuratu zuen. Ordurako, lurrebaso, Korta, Arria... garaiideekin jokatutako apustuaren garaile atera zen, Gerotik apustugiro hartan jasandako bizipen ez hain onak zirela eta, aizkora alde batera utzi zuen. Agur, Martin Gartziaarena Lesakenekoa.

KIROLA ▶

## Pilota eskolakoak aurrera doaz txapelketetan

Errekakoari, Laudiokoa erantsi zaio; Olazabal da bietan aurrelari, atzean lagun pareia izanik

J. ASTIBIA

Errekako Txapelketa martxan dela, Laudiokoari ekin diote pilota elkarteek, eta bietan ordezkariak badu Aurrerak.

Errekakoan, gaur bertan, 18:00etan dute jardunaldia, asteazkenetan jokatzen da normalean. Kasu honetan Sunbilako pilotalekuan dira ari beharrrak eta hirugarren partiduan, Olazabal eta Barandarrain are-

soarrak, Osinaga eta Lazkozen aurka. Ontsaloko Eraso bikoteak atsedena du aste honetan.

Bestalde, Laudioko Txapelketa ere etzidamu hasiko da, bertako pilota lekuan 19:00-etatik aurrera jokatuko diren partiduekin. Aurreraren ordezkari izanen da hemen ere, Mikel Olazabal, kasu honetan Patxi Betelu atzean duela, ordea. Castillejo-Orbegozo izanen dituzte aurrez-aurre.



## Erlojuan jarri dute ikurrina

**LEITZA ▶** Igandean, Aberri Eguna, udaletxeko balkoiko masta hutsean ez ezik, teilatuko erlojuaren ezkilaren muturrean ere ikurrin bana agertu zen. Atzo, balkoikoak kendua zegoen. J. ASTIBIA

## iragarki laburrak ▶



**Abaltzisketa.** Sei etxe abiki, sukaldia, egongela, bainugela eta terrazarekin, lehen solairuan, hiru logela, batek bainua du, bainugela eta bi terraza bigarren solairuan, bi autorentzako garajea eta txokoa beheko solairuan.

**Alkiza.** Hiru solairuko baserria, berrituko, 10.000 m<sup>2</sup>-ko lur sailarekin.

**Anoeta.** Duplex etxebizitza estreinatzeke salgai. 4 logela, 2 bainugela, egongela, sukaldia, terraza eta garajea aukeran.

**Andoain.** 75m<sup>2</sup>-ko etxebizitza

kanpoaldera, igogailua, eguzkitsua.

**Belauntza.** 1.060 m<sup>2</sup>-ko pabilioia salgai; oso argitsua eta garabiarekin.

**Belauntza.** 225 m<sup>2</sup>-ko pabilioia alokairuan eskaintzen da. Argitsua. Ur eta elektrizitate instalazioarekin.

**Bidanía.** Sei etxe bifamiliar, garajea, sukaldia, egongela, bainugela eta terrazarekin lehen solairuan, hiru logela, bainugela eta terraza bigarren solairuan.

**Donostia.** Duplex zoragarria. 70 m<sup>2</sup>, bainugela, Gros.

**Donostia.** Urbieta kalea, 90 m<sup>2</sup>-ko etxebizitza. Berrituko.

**Donostia.** Donostizarra. 75 m<sup>2</sup>-ko etxebizitza, kanpoaldera, oso eguzkitsua eta itsasora begira.

**Gaintza (Nafarroa).** Berrikuntza behar duen 3 solairuko baserria.

**Ibarra.** 75 m<sup>2</sup>-ko pabilioia eta 2.500 m<sup>2</sup>-ko lur saila. Nekazal, ustiapenerako egokia.

**Ibarra.** Bi apartamentuko etxe baten berrikuntza laster, garajea eta lur sailarekin.

**Lizartza.** 14.000 m<sup>2</sup>-ko pabilioiak salgai, 320, 400, 625 eta 922 m<sup>2</sup>-ko moduluetan, eraikuntza berrikoak.

**Tolosa.** Agintari kalean 75 m<sup>2</sup>-ko

eraikuntza berriko etxea salgai. Igogailua eta trastelekua.

**Tolosa.** Santa Klara kalean 90 m<sup>2</sup>-ko etxebizitza berritua. Atzealdean baratz propioa.

**Tolosa.** Gernikako Arbolan, 155 m<sup>2</sup>-ko etxebizitza salgai, kanpoaldera, berrituko.

**Tolosa.** Gudari kalean, Samaniego kalearekin iskinean, 110 m<sup>2</sup>-ko etxea, kanpoaldera, eguzkitsua, igogailua. Berrituko premia.

**Villabona.** Arroa kalean etxebizitza lehen solairuan. Igogailua, hiru ikuspegi, berrituko.

**Harpidedunei banatua ▶ 2005eko martxoaren 30a, asteazkena ▶ III. urtea**

**'HITZA' LAGUNTZEN DUTEN ERAKUNDEAK**

udalak: Alaitzola, Aizua, Albitz, Añeta, Alzua, Alzo, Amadea, Aneta, Areso, Balamán, Balaranta, Baratz, Berro, Etxauri, Herrialde, Ibarra, Nafarroa, Nava, Nizkor, Oñate, Oñate, Oñate, Oñate, Tolosa, Villabona, Zuzuki  
 besterik: Leizola, Euzkara Batzordea

Gipuzkoako Foru Aldundia

Eusko Jaurritza Kultura Saila

HITZA-KO BEZEROEN ARRETA ZENBAKIA (zalantzak, harpide egiteko...)

943 30 43 46

GAURKO EGURALDIA

goizez



arratsaldez



beroena

13

hotzena

09

BIHARKO EGURALDIA

goizez



arratsaldez



ELURRA ARALARREN



Guardetxe: ez

Albi: ez

Pagomari: ez

Igaratza: ez

**AGENDA ▶**

**DEIALDIAK**

**Anoeta.** KZgunean tutorea izango da bihar, 09:00etatik 13:00etara.

**Anoeta-Irura.** Autodefentsa ikastaroa antolatu dute bi udalek. Iruran emango dira klaseak, apirilaren 5etik ekainaren 28ra. Izena emateko epea hilaren 31 arte bi udaletxeetan.

**Baliarrain.** Txekor janaren nondik norakoak finkatzeko eta gimnasioari buruz hitz egiteko bilera. Bihar, 20:30ean, udaletxeko gizarite gelan.

**Tolosa.** Apirilaren 10ean 51ko kintoak elkartuko dira. Izen-ematea: 943 65 45 92 (Jose Maria Tolosa), 943 52 54 41 (Jose Mendizabal) eta 943 65 17 99 (Mendi-alde jatetxea).

**Tolosa.** Tailerrak Gazte Topagunean: brotxeak, komiki karterak, kamiseta pertsonalak... Bihar, Kultur Etxean, 16:30ean. Euro bat ordaindu behar da.

**Tolosa.** Soldadura ikastaroak Peñascal Fundazioan: 943 67 61 61.

**Villabona.** Apirilaren 14rako Iraxera irteera antolatu du Biltoki jubilatuen elkarteak 25 euroren truke. Oparia izango da. Izen-ematea, Biltokian bertan. Bestalde, urteko kuota ordain daiteke ekainaren bukaera arte.

**Villabona.** Aizkardi Mendi Elkarteak antolatuta, 37. ibilaldia da igandean. Izena emateko: 943 69 44 58 edo Aizkardiren lokalera joan ostegunean 21:00etatik 22:00etara.

**ZINE-KLUBAK**

**Alegia.** *Monster Ball*, Gaztebean, 21:30ean.  
**Ibarra.** *Primavera, otoño, invierno... y primavera* Gaztebean 21:45ean.

# Londresera ikastera

**TOLOSA ▶** Laskorain ikastolako DBH 4. mailako 30 ikasle Londresen izan dira hamar egunez, ikasleen arteko truke batean



Picadilly-ko plaza ezagunean Laskorain Ikastolako ikasle taldea laguntzaileekin batera. HITZA

**ERREDAKZIOA**

**A**ste Santuko oporrak hartu aurretik Londresen izan dira Tolosako Laskorain Ikastolako DBH 4. mailako hogeita hamar ikasle hiru laguntzaileekin 10 eguneko bidaietan.

Irteera hau ikastolako ikasleren onerakoa da.

ak burutzeko antolatu duen egitasmoaren barnean kokatu behar da. Aste Santu aurretik hauek Londresen izan badira, oporrak pasatakoan ikastetxe bereko beste ikasle batzuk Britainia aldera joango dira ere.

Aipatutako truke programa hori atzerriko hizkuntzen ikasketaren ekintza osagarri gisa

antolatu da batik bat. Honela Londonen ikastolako Gizarte ikasgaiaren ingelesez landu duten iraultza Industrialaren kategoria bertatik bertara eza-gutzeko aukera izan dute eta bertako dokumentazio zentruetan gai hori sakontzen ari-tu dira.

Honez gain Erresuma Batuko hiriburuko familietan bizitu

dira ikasleak hamar egun hauetan eta bertako ohiturak, hizkuntzak, elikadura ezagutu eta dastatzeko aukera izan dute.

Bretainiako irteera amaitzean, kanpotarrak Laskoraingo lagunengana etorriko dira eta ikasleen familiekin egongo dira bere etxeetan, honela elkartrukea borobilduz.

**AGURRAK ▶**



**URTE ASKOAN**  
 Miren Argi Galarza (Albiztur).  
 Zorionak eta muxu handi bat etxekoien partetik.



## HITZA, zorion agurren tarte

Urtebetetzak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberriak... zoriontzeko, etorri:

HITZAren egoitzara:  
 Araba etorbidea, 5 behe - TOLOSA  
 Udaletxeko bulegoa - LEITZA

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago. Mila esker!

**GALDUTAKOA ▶**



**GALDUTAKOA**

Ostegun arratsaldean galdu zen Alkiza inguruan. Golfo izena du. 675 71 34 97 telefonora deitu (Maite)